

ALKATE-DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Arkitektoaren (A1) lanposturako bitarteko funtzionario bat kontratatzea (2026ALK00007)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Udaleko Giza Baliabide eta Antolaketako teknikari naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente-zk.:..... 2026ALK00007

Espedientearen helbidea:..... OÑATI

Gaia:..... Arkitektoaren (A1) lanposturako bitarteko funtzionario bat (1)
kontratatzea.

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak:

2026ko uztailaren 22ko 1450 alkate-dekretuaren bitartez, Oñatiko Udalean karrerako funtzionario modura arkitektoaren lanpostua betetzen ari zen langileak egindako eskaera ontzat jo eta, beste udal batean funtzionario modura zerbitzuan izendatuta dagoen bitartean, Oñatiko Udalean ordaindu gabeko baimena izan dezan onartu zitzaion.

Beste administrazio publiko batean zerbitzuan 2026ko abuztuaren 17tik aurrera arituko zela-eta, abuztuaren 16a izan zen bere azkeneko lan-eguna Oñatiko Udalean.

Lizentzia honen ondorioetarako, Oñatiko Udalean betetzen zuen lanpostua gordeko zitzaiola hitzartu zen, betiere Udalak behin betikoz bete arte eta legeak ezartzen dituen mugekin.

Hori dela eta, Oñatiko Udaleko arkitekto-lanpostua (A1) hutsik geratuko da eta bitartekoz bete beharko da.

Zuzenbideko oinarriak:

Kontratazio honetarako prozesua abiatzeko, kontuan hartu dira urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10.1.a artikulua bitarteko funtzionarioei buruzko xedapenetan jasotzen duena eta Euskal Enplegu Publikoko 11/2022 Legeko 28.1.a) artikulua dioena:

"10. artikulua. Bitarteko funtzionarioak.

1. Bitarteko funtzionarioak dira, berariaz justifikatutako beharrian- eta presa-arrazoia direla medio, karrerako funtzionarioei dagozkien berezko eginkizunak betetzeko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzen direnak, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:



OÑATI

dabilen herria

a) Plaza hutsak egotea, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean, gehienez ere hiru urterako, 4. paragrafoan aurreikusitako baldintzetan."

"28. artikulua. Bitarteko funtzionarioak.

1. Bitarteko funtzionarioak dira, berariaz justifikatutako beharrian- eta presa-arrazoiak direla medio, karrerako funtzionarioentzat gordetako eginkizunak betetzeko izendatzen direnak, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Lanpostu hutsak egotea, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean, gehienez ere hiru urterako.

b) Lanpostua betetzen duen pertsona aldi baterako ordezkatzeari, bai plazaren titular gisa, bai bitarteko funtzionario gisa.

c) Zeregin gehiegi edo zeregin-pilaketa, gehienez ere sei hilabeteko epean, hamabi hilabeteko epean, kausa horiek gertatzen diren unetik zenbatzen hasita.

d) Lanaldi-murrizketaren, funtzionarioen prestakuntza-ekintzen edo beste absentsia partzialen kasuan.

e) Aldi baterako programak gauzatzea, honako hauen arabera:

1) Euskal herri-administrazioetako gobernu-organismoek aldi baterako programak gauzatzea onartu ahal izango dute, baldin eta lehendik dauden langileek ezin badiete programa horiei lotutako zereginei erantzun eta ohikoak ez diren jarduerak badira edo Administrazioaren egiturazkoak ez diren jarduera berriak abiarazten badira.

2) Oro har, aldi baterako programen iraupena ezin izango da hiru urtetik gorakoa izan, eta justifikatutako premiarik izanez gero, gehienez ere beste urte batera arte luzatu ahal izango da. Luzapena egin aurretik, dagokion administrazioaren ogasunaren eta enplegu publikoaren arloan eskumena duten sailen edo erakundeen aldeko txostena beharko da, eta langileen ordezkariak entzun beharko zaie."

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: "Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premia larria dagoelako, Lanbidera jo da, euskal enplegu-zerbitzua den aldetik, hautagai bat izendatzeko."

Aipatu langilea kontratatatzeko, hainbat udal eta herri-administrazioetan eskatu dira langileari esleitu zaion profilaren araberrako lan-poltsak, baina ez da hautagaien aldetik baiezkorik eskuratu. Kontratazio bat egitea beharrezkoa da, zerbitzu egoki bat bermatzeko. Horregatik, aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, Lanbidera jo da, euskal enplegu-zerbitzua den aldetik, hautagai bat izendatzeko.

Honakoa da Lanbidera jotzea ahalbidetu duen oinarri juridikoa:

190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko denak (58. artikuluan) dio:

"1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek berdintasun-, ageritasun-, merit- eta gaitasun-printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluenak izatea bideratzen dutela.





OÑATI
dabilen herria

2- Berariazko araurik ez balego, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza Baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikatutako memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoez baliatzeko aukera egongo da."

Etorkizunean Oñatiko Udalean sor litezkeen antzeko zeregin eta lanpostuak betetzeko erabili ahal izango dira prozesu jakin honetarako jasotako hautagaitzak, sor litezkeen beharrian berri horiek asetzeko propio beste lan-eskaintza bat abiatu beharrik gabe, eta, betiere, leudekeen lan-poltsek lehentasuna izango dutela bermatuta.

Administrazioak ofizioz formalizatuko du bitartekotasun-harremanaren amaiera, TREBEPe 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, honako arrazoi hauengatik ere, eta ez du konpentsaziorako eskubiderik izango:

- a) Karrerako funtzionarioek lanpostua arauzko eran betetzeagatik, legez ezarritako edozein prozeduraren bidez.
- b) Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea dakarten antolaketa-arrazoiengatik.
- c) izendapenean berariaz jasotako epe baimendua amaitzeagatik.
- d) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzeagatik.

Proposamena:

Hori guztia kontuan izanda, honakoa proposatu dut:

Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, arkitektoaren lanpostua (A1) betetzeko prozesua martxan jartzea, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duenak, 10.1.a artikuluan xedatzen duenaren arabera. Lanpostua betetzeko izendatuko dena bitarteko funtzionario gisa kontratatuko da, lanpostuaren titularra beste udal batean dagoen bitartean edo karrerako funtzionario baten bidez lanpostua bete bitartean.

Hileko soldata gordina lanpostuari dagokiona izango da.

Halaber, langileak 6 hilabeteko probaldia izatea proposatu da, lanerako gaitasuna duela egiaztatzeko.

Jasota dago kreditu nahikoa dagoela."

Goiko txostenak dioena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkatea naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, **erabaki dut:**

SINAa5337799-2420-42ac-8af4-6ad540052507





OÑATI
dabilen herria

Lehenengoa.- Salbuespenezko arrazoiak daudela adieraztea eta, udal honen premiazko behar atzeraezineari erantzuteko, izendapena egitea beharrezkoa dela, Lanpostuen Zerrendan berariaz jasota dagoen arkitekto lanpostua (A1) betetzeko, lanpostuaren titularra beste udal batean dagoen bitartean edo karrerako funtzionario baten bidez lanpostua bete bitartean.

Bigarrena.- Horretarako, arkitekto bitarteko funtzionarioa (A1) hautatzeko deialdia egitea.

Hirugarrena.- Honako hau eskaintzen da:

Arkitektoa Oñatiko Udalean (A1). Funtzioak:

- Eraikinen ikuskapen teknikoaren ardura izatea. Eraikinen kontserbazioarekin, segurtasunarekin, osasungarritasunarekin eta apaindurarekin lotutako alderdiei buruzko informazioa ematea.
- Proiektuak idatzi, gauzatu eta zuzentzea (obrak proiektu teknikoak egitea, zuzentzea eta ikuskatzea, adibidez). Obrak ekonomikoki eta teknikoki kudeatzea. Neurketak egitea, kalkuluak, balorazioak, tasazioak, aurrekontuak, ikuskapenak, obra-bisitak, egiaztapenak, landa-probak, lizentzien egiaztapenak eta antzekoak.
- Udalerriko eremu edo esparruetako planeamendu-aurreikuspenak egiteko beharrezkoak diren gestio-dokumentuak egin daitezen proposatzea eta berauek ikuskatzea (HAPO eta pareko hiri-antolamenduko egitasmoak barne).
- Udal-ordenantzak, -araudiak eta xedapenak diseinatzea eta idaztea.
- Lizitazio publikoetan preskripzio teknikoaren pleguak idaztea edota erredakzioan laguntzea.
- Sailari dagozkion diziplina-espedienteak eta zehapenak ebazteko proposamenak egitea.
- Desjabetze-espedientei buruzko txostenak, neurketak, etab. egitea.
- Udalaren informazio geografikoko sistema mantentzeaz eta eguneratzeaz arduratzea.

Izendapena: bitarteko funtzionarioa (A1).

Jardunaldia: % 100

Urteko soldata gordina: 56.981,82 €.

Laugarrena.- Honako profil hau eskatzen da:

Beharrezko eta ezinbesteko prestaketa:

- a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez izatea.
- b) Europar Batasuneko kide diren edozein Estatuko naziotasuna izatea eta EBn emandako eta Espainiako Estatuak onetsitako nazioarteko Itunen aplikazioa tarteko, langileen zirkulazio librea aplikagarri zaion Estaturen bateko naziotasuna izatea. Europar Batasuneko kide diren Estatuak naziodunen bikotekideek ere parte hartu ahal izango dute, legez bananduta ez badaude; era berean, haren ondorengoek eta bikotekidearenek ere bai, beti ere bi kideak legez bananduta ez badaude, eta hori, bai hogeita bat (21) urtetik beherakoak izanda edo hortik gorakoak eta euren kontura bizi direnak izanda ere.
- c) Titulazioa: arkitekturako lizentziatura, gradu-titulua edo baliokidea.
- d) Hizkuntza-eskakizuna: euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna (C2). Maila honetako hautagairik ez balego, 3. HE duten hautagaiak ere onartuko lirateke, bigarren mailan edo ordezkoko gisa.



OÑATI
dabilen herria

- e) Lanpostuko eginkizunetan ohiko jarduna eragotz dezakeen edo haiek bete ahal izateko bateraezina den gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea; hori ziurtatzeko, dagokion mediku-azterketa egingo zaio.
- f) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, Herri Administrazioei edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaitasunik edo desgaitasun berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan-kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko ere.
- g) Ezgaitasun-kasuetan sarturik ez egotea eta abenduaren 26ko 53/1984 eta apirilaren 30eko RD 598/85 legeak bateraezinezkotzat deklaraturiko jardueratan ez aritzea, ez egunean, ezta izendapenaren ondoren ere, praktiketan, nahiz, kasua balitz, jabetzan.

Bosgarrena.- Hautaketa-prozesuak bi fase izango ditu:

- a) Lehen fasea: merezimenduen eta lanbide-esperientziaren balorazioa
Aurkeztutako merezimenduak eta lan-esperientzia baloratuko dira, oinarri hauen seigarren puntuan ezarritako baremoaren arabera. Fase honen ondoren, hautagaien behin-behineko puntuazio-zerrenda argitaratuko da.
- b) Bigarren fasea: elkarrizketa pertsonala (fase baztertzailea eta aukerakoa)
Fase hau egitekotan, elkarrizketara deituko dira lehen fasean puntuazio handiena lortu duten hautagaiak. Elkarrizketaren helburua izango da hautagaien egokitasuna baloratzea (gaitasun profesionalak, eginkizunetara egokitzea, e.a.).
- c) Azken puntuazioa
Azken puntuazioa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da. Ondoren, behin betiko zerrenda argitaratuko da (elkarrizketa egitea erabaki bada, elkarrizketa egin ez duten hautagaiak zerrendatik kanpo utziko dira).

Seigarrena.- Hautagaiak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Merezimenduak (15 puntutik)

1.1. Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak (5 puntu).

- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako gaietan zerikusi zuzena dutenak. Gehienez ere 5 puntu arte baloratuko dira. Balorazio horretarako orduak hartuko dira kontuan eta 0,05 koefizienteaz biderkatuko dira, ikastaro desberdin bakoitzeko puntu 1era arte asko jota, betiere merezimenduen atal orokor honetan lor daitekeen gehienezko aipatu mugaren barruan. Horretarako, hautagaiak aurkeztutako dokumentazioan ikastaroaren iraupena (ordu-kopurua) zehaztu beharko da. Ez dira baloratuko ordu-kopurua zehazten ez duten ikastaroak. Soilik hartuko dira kontuan oinarriak argitaratu baino 10 urte lehenagoko ikastaro-tituluak.

1.2 Titulu akademiko ofizialak. Deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, bai eta masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko tituluak ere, betiere erabilgarriak badira deitutako lanpostuan aritzeko. Epaimahaiak baloratuko ditu egokiak diren edo ez, baina beroriei eman beharreko puntuak ere, baina ezin izango du, inolaz ere, 2 puntu baino gehiago eman goragoko titulu bakoitzeko eta puntu 1 maila bereko titulu bakoitzeko.

- Eskatzen dena baino goragoko titulua, edo baliokidea (2 puntu bakoitzeko, gehienez 5 puntu)





OÑATI

dabilen herria

- Maila bereko tituluak edo baliokideak (puntu 1 bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu)

2. Lanbide-esperientzia (gehienez 30 puntu)

- Batetik, 0,40 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan, lan-zerbitzuan jartzen duenaren arabera (deialdi honetako azpitalde eta lanpostu/sail berdina). Administrazioa toki-administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

Bestetik, herri-administrazioan lanean aritutako azpitaldea edo/eta lanpostu/saila desberdina denean hemen deitutakoarekiko, baina 3. atalean zerrendatutako hirigintza-funtzioetan izan bada, 0,20 hilabete oso bakoitzeko.

Hirugarrenik, herri-administrazioan lanean aritutako azpitaldea edo/eta lanpostu/saila desberdina denean hemen deitutakoarekiko (beste edozein arlotako lan-esperientzia, alegia), 0,05 hilabete oso bakoitzeko. Gehienez ere, 10 puntu, orotara.

- 0,15 puntu sozietate publikoetan edo sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokidetzat jotzen diren eginkizunetan.

** Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eska dezake.*

3. Aukeran, aurrez aurreko elkarriketa (gehienez 5 puntu) > aurreko 2 urratsen ondoren eta haien balizko osagarri.

Aurreko 2 ataletako puntuazioaren baturaren arabera hurrenkeran, elkarriketarako deia egin dakieke behin-behineko zerrendan goien dauden izangaiei. Gerta liteke prozesu honen barruan elkarriketarik ez egitea. Kasu horretan, guztira 45 punturen gainean egingo litzateke hautagai bakoitzaren balorazioa -alegia, elkarriketari esleitutako puntu-kopurua kenduta-. Aldiz, elkarriketa egitea erabakiz gero, 3 atalotako puntuazioaren baturaren arabera ezarriko da hautagaien puntuazio-balorazioaren behin betiko ordena.

Epaimahai kalifikatzailea Pertsonal eta Barne-antolaketako arduradunak eta teknikariak eta Lurralde-antolaketako teknikariak osatuko dute.

Zazpigarrena.- Deialdi honetatik kontratatzeko erauziko den izendapena aldi baterako izango da. Nolanahi ere, Administrazioak ofizioz formalizatuko du bitartekotasun-harremanaren amaiera, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, baita honako arrazoi hauengatik ere, eta izendapena ondoriorik gabe geldituko da eta ez du konpentsaziorako eskubiderik izango:

- a) Lanpostua karrerako funtzionarioek araututa betetzeagatik, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.
- b) Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa-arrazoiengatik.
- c) Izendapenean berariaz jasotako baimendutako epea amaitzeagatik.
- d) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzeagatik.

Zortzigarrena.- Langileari 6 hilabeteko probaldia ezarriko zaio, lanerako gaitasuna duela egiaztatzeko.

SINA5337799-2420-42ac-8af4-6ad540052507





OÑATI
dabilen herria

Bederatzigarrena.- Ebazpen hau interesdunari, Kontu-hartzailetzari eta Giza Baliabide sailari jakinaraztea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Oñatin, 2026ko abuztuaren 5ean

Alkatea

Izaro Elorza Arregui

Oñatiko Udala

Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • oñati.eus



OÑATIKO
UDALA



EKS | CSV: SINAa5337799-2420-42ac-8af4-6ad540052507

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Arkitektoaren Alkate Dekretua
CSV/EKS:	SINAa5337799-2420-42ac-8af4-6ad540052507

Digitalki sinatua:



Izaro Elorza Arregi
Alkatea
Data: 2026/08/05 13:12:00